

DANTZA

BILBO

► **La Cenicienta.** Jean-Christophe Mailloten ballet lana hiru zaitan. Montecarloko Balletaren eskutik, Arriaga Antzokian, 20:00etan.

GASTEIZ

► **Gogoaren hegialak.** Josu Mugikaren eskutik, Jesus Ibañez de Matauko Antzokian, 20:30etan.

IRUN

► **Hondarribia, Irun eta Hendaiako dantza taldeak.** Junkal plazatxoan, 16:00etan. Txingudi eguna.

HITZALDIA

ZANGOZA

► **2.000. urteruntz.** Mahai-ingurua kultur etxean, eguerdiko 12:00etan. Jardunaldi Belenisten barnean.

BERTSULARITZA

HERNANI

► **Xabier Amuriza.** Lazkao Txikiren inguruko emanaldi berezia. Ur-Mia elkartean, 22:00etatik aurrera.

ZEGAMA

► **Andoni Egaña, Sebastian Liza-so, Anjel Mari Peñagarikano, Joxe Agirre, Iñaki Murua eta Jexux Mari Irazu.** Kiroldegian, 22:30etan. Asemendi baserriaren aldeko bertso-saioa. Gai jar-tzaile: Laxaro Azkune.

ZUMAIA

► **Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa.** Aita Marin, 22:00etan. Bigarren kanporaketak.

ZUMARRAGA

► **Urretxu-Legazpi 2. desafioa: Lehen Saioa.** Amalu elkartean, afalorduan. Urretxuko Gorka Azkarate, Gorka Ojanguren eta Asier Otamendi Legazpiko Nerea Elustondo, Asier Iriondo eta Joseba Barandiaranen aurka.

ERAKUSKETAK

BEASAIN

► **Iñaki Martin eta Julio Martinen lanak.** Erakusketaren inaugurazioaren poesia erreztaldia izango da gaur. Aterpe tabernan, 23:00etan.

MUTRIKU

► **Illeta.** Julian Ugarteren bideo eta marrazkiak, Lizardiren *Bihotzean minduz* olerkian oinarrituta. Zapiel kultur etxean, azaroaren 1a arte. Gaurko inaugurazio ekitaldian Andu Lertxundik parte hartuko du, olerki batzuk irakurriz.

ERAKUSKETAK

Iñaki Bergararen argazki erakusketa • Andoainen, Gaztelutxo tabernan

Iñaki Bergara

• ARGAZKILARIA •

«Herri pobreetan, arrainak eman beharrean, arrantzan erakutsi behar zaie»

Iñaki Bergarak Ekuadorren ateratako argazkiak ikus daitezke, azaroaren 12a arte, Andoainen. Argazkilariak Hego Amerikan izandako esperientzia kontatu digu.

■ **Nola joan zinen Ekuadorrera?**

Joan den urteko udan joan nintzen, hiru hilabetetarako. Iruñeko Manabi taldearekin joan nintzen, hango proiektu batean lan egitera. 1992an sortu zen, eta herriko jendeari laguntzera joaten da jendea. Miseria gorrian bizi direnekin lan egiten da.

■ **Zertan gauzatzen dira proiektu txiki horiek?**

Beraiei, adibidez, janari sorta bat oparitu beharrean, komunitate bakoitzean dirua jartzen da. Fondo bat dagoenean lanean jartzen dira bertakoak; adibidez oiloen hazkuntzan. Pastoral Sozialek kostuen % 75 jartzen du, eta % 25 emakumeek osatutako auzo elkarteak. Ni izan nintzen tokian emakumeek egiten dute lan gehien. Argi dago ez zaizkiela gauzak oparitu behar, baizik eta jendeak euren mesedetan lana egin dezan lagundu behar da; arrainak eman beharrean, arrantzan erakustea funtsezkoa da.



PABLO S. QUIZA

Iñaki Bergarak Ekuadorren irudi ederrak atera zituen iazko udan..

■ **Zailtasunak handiak al dira han?**

Bai. Gainera, horrelako proiektuek arrakasta izateak gobernuari mina ematen dio. Bost komunitate dau-de, eta hango jendeak lanean jarraituko du, nahiz eta hemengoak ez egon. Baina gobernuari beti saiatzeko ondo funtzionatzen duena suntsitzen. Lurra oso aberatsa da, baina botereak ez ditu medioak jartzen.

■ **Zeintzuk argazki dituzu jarrita erakusketan?**

Istoria txikiak izenburua jarri diot argazki-sortari. Jendearen erretratoak ateratzen nituen heinean, istorioak ateratzen nituen. Erakusketekin batera

proiektuak doaz. Kasu honetan platanoren bilke-ta, erretratoak, merkatua eta paisajeak daude. Bestetik, laguntza taldearen ikus-entzunezko bat egin-da daukat. Hara joandako bakoitzak konpromisoren bat hartu dugu. Lagundu nahi duenak Andoaingo Udalerari dei dezake taldeekin harremanetan jartzeko.

■ **Argazkilari zaren alde-tik, zer moduz zabilta?**

Argazkilaritza digitala ikasten ari naiz Donostian. Erakusketetan hor nabil, eta lehiaketetan sari batzuk ere irabazi ditut.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

IKASTAROA

BASAURI

► **Adierazpen plastika tailerrak.** Argazkigintza, pintura eta irudi-gintza, keramika, eskulturgintza, eta bestelako ekitaldiak. Izena emateko edo argibide gehiagorako Social Antzokira jo (94-44263185 telefonora dei dezakezue).

BEASAIN

► **Elikagaien kontserba artisau-ki ikastaroa.** Ezkiaga auzo etxean izango da azaroaren 4tik aurrera. Izena emateko eta argi-bide gehiagorako 943-161024 telefonora dei dezakezue.

► **Saskigintza ikastaroa.** Ezkiaga auzo etxean izango da azaroaren 3tik aurrera, asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara. Argibi-

de gehiago 943-161024 telefo-noan.

► **Aisialdiako begirale ikastaroa.** Informazioa eta izen-ematea (urriaren 29a baino lehen) Uda-letxeko Euskara Zerbitzuan. Klaseak asteburuetan, jaegunetan eta oporraldietan izango dira. Titulua lortzeko 120 orduko praktikaldia egin beharko da, eta horri dagokion txostena idatzi eta aurkeztu. Argibideak 943-805251 edo 028063 telefo-noetan.

BILBO

► **Alde Zaharreko Euskal Txoko-ak eta Lizardi Euskaltegiak antolatutako ikastaroak.** Txa-laparta, literatura, euskal dan-tzak, argazkilaritza, panderoa eta mintza-praktika ikastaroak. Urritik abendura iraungo dute. Argibide gehiagorako eta izena

emateko 656759309 telefonora dei dezakezue.

► **Galibo dantza espazioak anto-latutako ikastaroak.** Dantza Oriental azaaroaren 6an eta abenduaren 11an; meditazio aktiboa azaroaren 12, 13 eta 14an (aurkezpen ekitaldia aza-roaren 9an); dantza garaikidea urriaren 30 eta 31an eta azaroaren 1ean. Argibideak eta izena emateko deitu 94-4420626 tele-fonora.

DONOSTIA

► **Lurralde antolaketa eta kude-aketa diploma.** Urriaren 25ean amaituko da Lurralde Antolake-ta eta Kudeaketan adituak sor-tzeko ikastaroan izena emateko epea. Miramar jauregian izango da Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko Unibertsitateko Ekono-mia Aplikatua I. departamen-

duarekin lankidetzan eta Eusko Jaurilaritzako Hirigintza, Etxe-bizitza eta Ingurugiro Sailaren babesaz antolatutako gradua-tuondokoa. Azaroaren 5ean emango zaio hasera 250 irakas-orduz (25 ikas-kreditu) hornitu-riko egitarauari, goi mailako ikasleek garatuko dutelarik. Ikasleen kopurua 35 plazara mugatu da. Eusko Ikaskuntza-ren Bulego Nagusietan eska dai-teke informazio osagarria (Tele-fonoa: 943-310855).

► **Dantza tailerra.** Antzerki, mu-sika eta arte plastikoetan jardun-ten direnentzat prestatu du A Deshoras taldeak. Kominikazio artistikoa, bat-batekotasuna, gorputzaren jarrera egokiak... landuko dira. Izena emateko epea urriaren 31an amaituko da. Argibide gehiago 670067190 telefonon.

EIBAR

► **Literatur tailerra.** Azaroaren 10etik otsailaren 9a arte iraun-go du. Matrikulazio epea azaro-aren 8an amaituko da. Argibide-ak eta izen ematea Portalean, 943-707153 telefonon.

HERNANI

► **Lau ibilaldi ipuinean barre-na.** Ipuin ikastaroa Jon Alonso-ren eskutik. Dobera Euskara Elkarteak azarorako antolatu du. Xehetasun gehiago 943-332799 telefonon.

ORDIZIA

► **Zeramika ikastaroa.** Kultur etxean izango da asteazken eta ostiraletan. Helduentzako ikas-taroa da eta datorren udara arte iraungo du. Informazio gehiago, 943 80 56 30 zenbakian.

SANTURTZI

► **Elkar entzuketako ikastaroa.** Azaroaren 6an eta 7an izango da. Bertan gure bizitzaren jabe egiten egire sentipenak kudea-tuz ikasiko da, eta elkar lagun-tzaren bidez. Argibideak eta izen-ematea 94-4614114 telefo-noan.

UROLA-KOSTA

► **Eskoletako kirol monitoreen-tzako ikastaroa.** Ikastaroa Za-rauzko La Salle ikastetxean emango da, bost egunetan: Urriaren 26a, azaroaren 2, 8, 10 eta 15ean. Informazio gehiago 943-833260 telefonon.

BESTELAKOAK

ELDUAIEN

► **Peio Añorga ipuin-kontalaria.** Urdelar biltokian, 16:30etan. Ondoren txokolatada.

ERMUA

► **Sagardo erakustaldia.** Sosioux kultur bandarekin, herriko pla-zan, 19:30etan. Bizkaiko sagar-dogileen elkartearen laguntzaz.